

# **Fontes Linguae Vasconum aldizkariak 100 zenbakitik gora**


---

## **1. SARRERA**

Nafarroako gobernuaren *Príncipe de Viana* kultur erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum* [FLV] aldizkaria ehungarren zenbakira iritsi zen iaz. Aitzakia egokia iruditu zaigu argitalpen honen aipamena egiteko, ez baita oso ohikoa gure artean era honetako ekimenak –aldaketa eta gorabehera politikoak gaindituz– hainbeste denboran etenik gabe irautea eta jatorrizko helburuei eustea.

Frankismoaren hondar urteetan, 1969an, ekin zion bere ibilbideari *Fontes Linguae Vasconum / studia et documenta* izenarekin eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkariarekin batera. Bata zein bestea Nafarroako Foru Aldundiak 1940. urteaz gero kaleratzen zuen *Príncipe de Viana* kultur aldizkariaren enborretik hazitako bi adar bezala jaiotzen ziren, nahiz eta gerora bakoitzak bere eremu propioan jardun, hots, hizkuntzaren eta etnografiarenean.

Gerraoste latzean, Eusko Ikaskuntzaren [RIEV] eta Euskaltzaindiaren [Euskera] aldizkariak derrigorrean desagerrarazi zituztenean, euskararen inguruko lanek eta ikerketek nekez aurkitzen zuten irakurleengana heltzeko modurik. Puska batean Euskal Herriko Adiskideen Buletinak [BRSBAP] eskaini zien nola-baiteko aterpea. Gerora, egoera pixkanaka hobetuz joan zen, batez ere *Euskerak* Bilbon bere bigarren aldiari ekin zionean (1956), eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean Donostiako Julio Urkijo Mintegiak bere Urtekaria [ASJU]



kaleratzen hasi zenean (1967). Garai hartan, gainera, ez zen unibertsitate publikorik Euskal Herri osoan, ezta euskal ikasketa arauturik ere unibertsitate pribatuetan. Testuinguru horretan, bada, bultzada nabarmena eman zien 1969an euskal ikasketei *Príncipe de Viana*-ren argitalpen berriak.

*FLV*en sorreran Jose Esteban Uranga Galdeano iruindarra agertzen da, Koldo Mitxelena eta Julio Caro Baroja aita-ponteko dituela. Uranga bera izan zen lehenengo zuzendaria, eta hurrengo urteetan ofizialki Vicente Galbete, Jose Maria Yarnoz eta Julio Caro Barojak ere eduki zuten kargu hori. Alabaina, aldizkariaren benetako arima eta eragilea Jose Maria Satrustegi idazle eta euskaltzaina izan genuen hasiera-hasieratik. Urdiaingo erretorea, gainera, *FLV*en gehien publikatu zuen ikerlaria ez ezik, zuzendari ofiziala ere izan zen bere azken urteetan, 2003an hil zen arte. Harrezkero, Patxi Salaberri Zaratiegí ari da zeregin horretan, Iñaki Camino, Joakin Gorrotxategi eta Joseba Lakarraren lankidetzarekin.

*FLV* euskararen esparrua landuko zuen nazioarteko aldizkari gisa sortu zen. Eta bere izenean garbi asko azaltzen den moduan, bi alor nagusirekin: bata *studia*, hau da, euskararekin zerikusia duten hizkuntzalaritza, filologia, gramatika eta lexikografiari buruzko lanak eta azterketak kanporatzeko; eta *documenta* bestea, argitaratu gabeko *lingua navarrorum*-aren testu zaharrak ezagutarazteko, alegia. Horretaz gain, euskararen eta euskal idazleen gaineko argibide historiko nahiz egungoak eta arlo honetako liburu eta lanen iruzkin profesionalak ere etortzen dira *Fontes*-eko orrialdeetan.

Lehenengo hamarkadan *FLV*ek argia lau hilabetetik behin ikusi bazuen ere, 1980-1991 bitartean sei hilabetekari bilakatu zitzaigun, azken hamabost urteotan berriro ere lau hilabetekari bihurtzeko. Ia berrogei urte hauetan 101 zenbaki kaleratu dira, 17.000 orrialde baino gehiagotan ia 300 egile desberdinek 800 bat lan argitaratuz. Normala denez, Nafarroako autore, euskalki eta testu zaharrak izan dira aztergai eta idazgai nagusienak, baina lehendabiziko numeroetatik saiatu ziren *FLV*eko zuzendaritzakoek beste herrialde batzuetako euskara-mota eta egileak ere errebistara erakartzen, atzerriko euskalari inportante askoren ekarpen interesgarriak ahortzi gabe.

Era honetako aldizkarietan ohi denez, hizkuntza bat baino gehiago erabili izan da *Fontes*-en lanak argitaratzerakoan. Hasierako urteetan gaztelaniaz taiututako idazkiak nagusi baldin baziren ere, gerora euskarazkoak eta ingelesezkoak nabarmen ugaltu dira. Kopuruari dagokienez, frantsesez moldatutako lanak etorriko dira hurrengo, eta alemanezkoak ondoren, maila askoz urriagoan.

## 2. PARTAIDEAK

### 2.1. Ikerlari euskaldunak

Gaiak eta lanen kopurua kontuan izanda, uste dugu alde batetik partaide nafarrak edota bereziki Nafarroan aritutakoak, eta bestetik gainontzeko euskaldunak sailkatzea dela egokiena.

### 2.1.1. Nafarroakoak

Arestian aipatu den legez, Nafarroako idazleak azaltzen zaizkigu ugarien *FL*veko 101 zenbakietan. Hasteko, aipa ditzagun zendu berri diren bi euskaltzain: denen artean buruzagi, Jose Maria Satrustegi, Arruazuko semea, 55 artikulurekin; eta honen ondoren, Patxi Ondarra kaputxino bakaikuar oparoa. Hauekin batera Juan Apezetxea eta Polikarpo Iraizozkoa gogoratu behar dira, Elkanoko Lizarragaren obraren azterketagatik batez ere. Lehenengo hamarkadetan Aingeru Irigarai mediku eta euskaltzaina eta honen semea Javier Irigarai Imaz (Nafarroako botanikaz) nabarmentzen zaizkigu lan anitzekin. Geroxeago Jose Maria Jimeno Jurío historialaria eta Ricardo Cierbide filologoa ditugu emankorrenetakoak.

Belaunaldi gazteagotan beste hainbat ikerlari dugu aipagarri: esaterako, Patxi Salaberri Zaratiegí uxuetarra era askotako ekarpenekin; Jose Luis Erdozia etxarriarra Sakana aldeko azterketekin; Orreaga Ibarra Ultzama eta Erroibarkoekin; Peio Kamino Luzaidekoekin. Eta jatorriz gipuzkoarrak izan arren, euren ikerlanik nagusiena Nafarroako euskalkiez burutu dutelako, hona dakartzagu Koldo Artola (Zaraitzu eta Erronkari) eta Iñaki Camino (Arakil, Behe Nafarroa eta hego-nafarrera) ere. Hauetaz gain, mota askotako beste zenbait artikulua eta ikerketa-lan ere interesgarriak ditugu: adibidez, Jorge Errezuko, Perpetua Saragueta, Jose Goñi Gaztanbide, Francisco Javier Oroz, Jose Maria Sánchez Carrión *Txepetx*, Pello Salaburu, Andres Iñigo, Patziku Perurena, Hortensia Viñes, Ricardo Urrizola, Balbino García de Albizu, Pello Etxaniz, Juan Jose Zubiri, Joxemi Bidador, Jose Manuel Floristán edota Roland Jimenorenak.

### 2.1.2. Gainontzeko euskaldunak

Nahiz eta ikertzaile nafarren adinako ekoizpen-mailara ez heldu, Euskal Herriko gainerako probintzia eta eskualdeetako idazleek *FL*ven eduki duten parte hartzea ere garrantzitsua izan da aldizkariaren historia osoan zehar. Euskal hizkuntzaren ikasketei dagozkien aldi horretako argitalpen gehienetan legez, kopuru eta bereziki kalitate aldetik Koldo Mitxelena euskaltzainaren era askotako ikerlanak dira azpimarratu beharrekoak lehenik eta behin. Alabaina, ez da gutxiestekoa beste euskaltzain oso askoren partaidetza inportantea. Goraxeago izendatu diren zazpi euskaltzain nafarrez gain, beste honako hauek ditugu, argitaratutako artikulua-kopuruaren arabera: Txomin Peillen, Luis Villasante, Alfonso Irigoien, Patxi Altuna, Henrike Knörr, Xabier Kintana, Pierre Lafitte, Juan San Martin, Andolin Eguzkitza, Manuel Lekuona eta Joan Gorostiaga.

Badira *Fontes*-en, jakina, euskaltzain oso ez diren ikerlari eta irakasle euskaldunen ekarpen interesgarriak ere. Horien artean Iñaki Gaminde dialektologo bilbotarra azpimarratu beharko genuke, agian, Hego Euskal Herri guztiko euskararen hainbat aldaerei buruzko 26 lan argitaratu baititu *FL*ven. Betiko klasikoetan artean, Justo Garate Mendozako bergarra izan zen, eztabaida eta guzti, aldizkariaren lehenbiziko urteetan lankiderik saiatuenetakoak.

Beste bergarar batek ere, Josu Oregik, sarritan idatzi zuen errebista honetan; eta urriago, baina behin baino gehiagotan, Angel Goenaga, Jose Basterretxea *Oskillaso*, Gaizka Barandiaran eta Luis Mari Mujikak. Beste arlo batzuetan ezagunagoa den Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i edota Gabriel Aresti zena ere hurreratu ziren *Fontes*-en orrietara.

Hizkuntzalaritzaren hainbat alderdi jorratu dute azken aldian Karmele Rotatetxe, Bittor Hidalgo, Xabier Alberdi, Xabier Artiagoitia eta abarrek. Toponomia-sailean dihardute batik bat Mikel Gorrotxategi bizkaitarrak eta Roberto González de Viñaspre arabarrak. Aurrerago ere ikusiko dugunez, pisu handiko azterketak idatzi ditu Koldo Zuazok dialektologia-esparruan eta Josu Tellabidek, Koldo Artolarekin batera, funtsezko landa-lana argitaratu du euskararen mugei buruz. Jon Kortazar, Patxi Salaberri Muñoa eta Alfonso Otazuk, berriz, literatura-gaiei heldu diete. Orain arte aipatu ditugun partaideok Hegoaldekoak badira ere, ez da *FLV*eko kolaboratzaileen artean Iparraldekoak falta, hala nola, Héctor Iglesias toponimiaz, Jean Baptiste Coyos gramatikaz edota Xarles Videgain elezaharrei buruz.

## 2.2. Estatuko ikerlariak

Euskal Herrikoak baino maila askoz txikiagoan izan arren, espainiar estatuko unibertsitate nahiz beste zentro batzuetako ikerlariek ere parte hartu dute *Fontes*-en. Sarritan eremu mugakideetako edota sasoi batean euskaldun izandako lurretako hizkuntza-ezaugarri, berezitasun eta ahaidetasunak aztertu dituzte. Vasco-iberismoaren inguruko gaiak ere behin baino gehiagotan plazaratuak izan dira.

Adibidez, Zaragozako unibertsitateko hiru irakasleren ekarpenak irakur daitezke garai desberdinetan: Juan A. Frago García-renak 1976-1977 aldera eta Carlos Jordán Cólera nahiz José Antonio Saura Rami-renak 1994-2001 bitartean. Guztira zortzi bat lan ditugu, Aragoi aldeko toponimiaz eta nafar-aragoieraren eremuko beste gai batzuei buruz ari direnak.

Kataluniatik Joan Corominas maisuaren hiru lan interesgarri iritsi ziren *FLV*era lehen urteetan [1970-1973]: euskarazko ahaidetasun-izenak aztertzen zituen lehenbizikoak; Ipar Euskal Herriko eta Biarno aldeko toponimia euskalduna eta euskal-erromanikoa bigarrenak; eta Pirinioetako zenbait epigrafiaz ziharduen hirugarrenak. Orainago lan bana argitaratu dute Jordi Bilbeny [1998] eta Moisés Sella Sastre-k [2000]: *Llagostera* leku-izenaz batak eta Ribagorzako euskal toponimiaz besteak.

Errioxako unibertsitateko Fabián González Bachiller irakasleak euskal antroponimia Ozkabarteko (Santo Domingo) dokumentuetan [2001] eta *yasa/jasa* hitzak Nafarroa/Errioxako eremuan [2003] arakatu ditu. “Laminiturri” elkarteko José María González Perujo eta Martín Martínez Sáenz de Jubera-k, aldiz, Errioxako euskal onomastika aztertu dute [1998]. Bestalde, Errioxarekin mugakide den Belorado (Burgos) inguruko euskal toponimiaz aritu da Rufino Gómez Villar [2003].

Gainontzekoetatik gogora ditzagun, besteak beste, Antonio Tovar Salamancako erretore ohi eta euskalari ospetsuak bidalitako hiru ikerlan labur: hainbat zertzeladari buruzko euskal saski-naski bat [1971]; Pamplona/Iruñea izenaz [1977] bestea; eta “Vascos, vascones, euskera” [1987] hil ondoko artikulua. Madrileko unibertsitate complutenseko Ángel Alonso-Cortés irakasleak Lorenzo Hervás hizkuntzalari klasikoak euskarararen gainean idatzitakoak jorratu zituen [2000]; eta hiri bereko unibertsitate autonomoko Emilio Nieto Ballester-ek, berriz, arestian aipatu den *yasa/jasa* hitzei buruz beste ikuspegi bat eskaini zigun [2005].

Aipagarriak dira, halaber, iberikoaren inguruan ondutako beste lan hauek ere: Juan Faus Cardona-ren biak [1975 eta 1976]; Jesús Rodríguez Ramosena [2002]; eta, batez ere, Santiago Pérez Orozco-ren laurak [1993 (2), 2004 eta 2005]. Eta atal honekin bukatzeko, beste bi ekarpen: Granadako Teología Fakultateko Gabriel María Verd Conradi irakaslearen *Eneko* eta *Oneka* izen zaharretatik datozen deitura modernoei buruzkoa [1978]; eta Claudio González Pérez-ek Santiagoko katedralean erromes euskaldunentzat egon ohi ziren aitorleen berri ematen diguna [1978].

### 2.3. Atzerriko ikerlariak

Hogeita hamazazpi urte hauetan atzerriko makina bat hizkuntzalari eta ikerlarik aberastu dute *FL*ven kultur ondarea: lan bakarra argitaratu dute batzuek, dozenatik gora beste batzuek; hiruzpalau orrialdetakoak inoiz, baina 50 baino gehiagokoak ere bai sarritan; ugarienak europarrak izan arren, ez dira amerikar eta asiarrak ere falta.

Kanpotarren artean Frantziako adituak ditugu gehientsuen agertzen zaizkigunak. Batzuen lankidetza oparoa izan da, benetan: esaterako, Michel Morvan-ek hamahiru lan [1985 eta 1997 bitartean] eta H. Polge-k zortzi [1969tik 1973ra] igorri zituzten *FL*vera. Aipagarriak dira, halaber, Jacques Allières-en lau ekarpenak [1973tik 1993ra], eta hiru emanalditan agertu zen Nicole Moutard-en euskal fonologiari buruzko ikerketa luze eta sakona [1975 eta 1976]. Horietaz gain, hamarkada hauetan Goulven Pennaod [1970], J. Leonce Doneux [1971], Lucien Clare [1974], Georges Rebuschi [1989] eta Gwenaël Le Duc-ek [1995] artikulua banarekin hartu zuten parte.

Nahiz eta aurrekoaren adinakoa ez izan, azpimarragarria da Errusiako hainbat ikerlariren partaidetza, San Petersburg-eko unibertsitateetakoak batik bat. Guztien gainetik Yuri Vladimir Zytsar nabarmenduko beharko genuke 22 lanekin [1976tik 2005era], eta hauen artean, agian, Koldo Mitxelena-rekin 1967 eta 1971 bitartean izandako gutun-trukaketa [2001, 2004 eta 2005]. Dena den, aldizkariak eduki zuen lehenengo lankide errusiarra Smolensk-eko G. Silnitskiy izan zen [1970]. Geroztik, eta azken urteotan bereziki, beste zenbait errusiar ere aritu da zeregin hauetan: M. V. Zelikov [1988, 1993 eta 2000an], Alexey Zytsar [bost lan 1997 eta 2002 bitartean], Andrey Pinkevich [1994] edota S. F. Pushkariova [1998].

Hizkuntzalari errusiarrek behin baino gehiagotan egin izan dituzte Kaukasoko hizkuntzen aipamenak, baina badira Georgia, Armenia eta inguru haietako beste herrialde batzuei buruzko erreferentzia zuzenagoak ere. Berbeta kartveliar eta euskararen arteko senidetasunak adierazi dituzte *Fontes*-en Greta Chantladaze-k [1977 eta 1998], Ts. G. Tchankhnachvili-k Y. V. Zytsar-ekin batera [1989], I. B. Bochorischvili-k [1992] eta Tamara Majaroblidze-k [1996]; baita Jan Braun poloniarrek ere [2001]. G. A. Klimov eta D. M. Edelman-ek Abkhazia aldeko aldaera eta euskararen arteko antzak aipatu zituzten [1976]. Armenian, berriz, Vahan Sarkisian azaltzen zaigu euskalaririk emankorra hamahiru lanekin [1992tik 2003ra].

Herrialde germaniarretatik, lehenik eta behin, Karl Bouda Berlingo hizkuntzalari gogoratu beharko dugu: hamaika (11) kolaborazio bidali zituen alemanez *FLVera* 1969 eta 1973 bitartean honek ere euskara eta hizkera kaukasiarren arteko ahaidetasunak maiz aipatzen dituela. Aspalditxoan Danimarkan ari den W. Wilfried Schuhmacher-ek [hamabi lan 1975 eta 1995 bitartean], besteren artean, Kaukaso eta ekialdeko hainbat hizkuntzen arteko harremanak azpimarratu ditu, ingelesez gehienetan. Justo Garatek itzuli eta argitaratu zuen 1971ean Holger Pedersen daniarrak urte batzuk lehenago moldatutako lantxo bat. Hans Schwert Tübingen-eko erromanistak lau artikulutan beste lau euskal hitzen gaineko azterketak egin ditu frantsesez [1994tik 1997ra]. Eta 1997an azaldu zen *Fontes*-en Hans Mukarovsky Vienako afrikantistak bost urte lehenago Gasteizko Filologia Fakultatean Ipar Afrikako hizkuntzen eta euskararen arteko balizko harremanenez eman zuen hitzaldia.

Europako beste hainbat lurraldetatik ere heldu dira ekarpen inportanteak Iruñeko aldizkarira. Suediatik, adibidez, zortzi lan bidali zituen bi hamarkadetan [1970tik 1990era] Nils M. Holmer, Lund-eko euskalari ezagunak; hasierako urteetan Lennart Andersson-ek hiru [1971, 1975 eta 1976]; eta beste hiru Arthur Holmer Vollsjo-ko irakasleak [1992, 1999 eta 2001]. Harald Haarmann ikerlariak Finlandiatik helarazi zuen 1998an bategite etniko eta ukipen-hizkuntzei buruzko azterketa bat. Ezin ahaztu Rudolf de Rijk nederlandarren hiru ikerlanak [1969, 1970 eta 1999], ingelesez lehen biak eta euskara dotorean azkena; eta Maarten Steenmeijer, De Rijk-en ikasleak, elebitasunari buruz argitaratu zuena [1979]. Bitxi samarra bada ere, Erreinu Batutik etorritako lan bakarra ageri da *Fontes*-en: Oxford-eko unibertsitateko John P. Linstroch-ena [1998], *arrain* berbaren inguran.

Europatik at ez da, egia esan, *FLVera*ko askotarrik sortu. Alabaina, bada zerbait: Ameriketako, eta Iparraldeari dagokionez, azpimarratzekoak dira ergati-boaz ari diren UCLA-ko Terence W. Wilbur-en bi lan goiztiar [1970 eta 1979]; Austin-go unibertsitateko Thomas R. Hester-ek euskarazko subjektuaz jardun zuen [1978]; Kaliforniako Southern University-ko José Ignacio Hualdek *yod*-ak hiru euskalkitan izandako bilakaera arakatu zuen [1987], eta Minnesotako unibertsitateko John B. Bengston-ek euskal eta kaukasiar bokalen arteko korrespondentziaz [1996] idatzi zuen. Hego Amerikakoak, berriz, ez dira orain arte argitaratu Justo Garatek Argentinako Mendozatik igorritakoak baino [hamahiru lan 1972 eta 1981 bitartean]. Urruneko Ekialdetik Japoniako autore pareazaldu da *Fontes*-en orrialdetara: Kanagawa-ko F. Seto bi lanekin [1993, 1994,

Wilfried Schuhmacher-ekin lankidetzan] eta Kioto-ko Masu Nitta *Getadar* eta *Sabaiza* nafar toponimoei gaineko ikerketarekin [1997]. Aipatzekoak dira, azkenik, honako bi lan hauek ere: Medea Glonti-ren hebraierazko eta euskarazko aste-egunen erkaketa [1998], eta David L. Gold-ek Euskal Herrian Erdi Aroan bizi ziren juduek zerabilten mintzamoldeari buruzkoa [2003].

### **3. DIALEKTOLOGIA**

Euskal Dialektologiari arreta berezia eskaini zaio *FLVen*. Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Zuberoako euskara-motei buruzko hainbat lanek ezagutu dute argia bere orrialdeetan. Arabako euskara ere aztertu da azken urteotan. Nafarroa Beherekoa, aldiz, ez hainbeste. Gehien, jakina, Nafarroa Garaiko euskalki desberdinetako lekukoak eta hauen gaineko ikerketak agertu dira, oraindik diren eta, egun izan ez arren, garai batean euskaldun ziren eskualde eta herri askotako argibideak bilduz.

#### **3.1. Euskal Herria osorik**

Euskal Herri guztiko euskararen dialektoei dagokienean, aldizkari hone-tan kaleratutakoen artean hiru lan dira benetan azpimarragarriak: bata Nicole Moutard-en “Étude phonologique sur les dialectes basques” [1975 (2) eta 1976]; bestea Arantzadi Zientzia Elkarteko Koldo Artola eta Josu Tellabide-ren “Euskararen muga 1980. urtean” [1990]; eta hirugarrena Koldo Zuazoren “Euskalkiak, gaur” [1998].

Moutard-ek hiru zatitan publikatu zuen *FLVen* euskalki guztien fonologia-ezaugarriak dakartzan 140 orrialdetik gorako azterketa mardula, hartarako berak 1969an hainbat herritan egindako inkestak eta aurretik beste batzuek burututako lanak erabiliz. Tellabide eta Artolak, Euskal Herri osoa herriz herri eta auzoz auzo miatu ondoren, zehazki finkatu zituzten euskarak 1980 inguruan zituen mugak. Eta Zuazok, berriz, mende batean ia ukitzeke zegoen L. L. Bonaparteren euskal dialektoen sailkapenaren orde-z berri bat proposatu zigun: ohiko zortzi euskalkitan banatu beharrean sei multzotan bakarrik sailkatzea, hots, mendebaldekoa, erdialdekoa nafarrera, ekialdeko nafarrera, nafar-lapurtera eta zuberera, bakoitzaren eremua eta bereizgarriak adieraziz.

#### **3.2. Eremu handiko eta eskualde bateko azterketak**

Badira lan batzuk esparru zabal samar bateko mintzairak aztertzen dituztenak: euskalki osoa, gehiena edo zati bat bakarrik, baina saio supradialektalak ere izan daitezke. Esate baterako, Orreaga Ibarrek Nafarroako Ultzama eta Basaburuko hizkuntzaz jardun zuen bi artikulutan [1994 eta 1996], ondorio hauetara ailegatuz: Basaburuko euskara hurbilago dakusa Larraungo hizkeratik Ultzamakotik baino; azken honetakoa, ostera, Ezkabarte, Odieta eta Esteribarkoetatik hurrago; bestalde, Nafarroako euskalkiak ipar/hego eran banatzea baino hobeto iruditzen zaio mendebal/ekialde eran bereizteari.

Nafarroan bertan Iñaki Caminok ehun eta berrogeita hamar ezaugarri baino gehiagori erreparatu die Aezkoatik hasi eta Gesalatzerraino, baina Zaraitzu eta Sakanako hizketa-moldeetatik ikas daitekeena baztertu gabe [2003]. Caminok, bada, hego-nafarrera deritzanaren ezaugarriak aztertu ditu eta haren eremua zehaztu, L. L. Bonaparteren garaitik euskalkizat hartzen zen hizkera hori nafarreraren azpieuskalki gisa proposatuz. Bestalde, Nafarroa Behereko euskaramoten inguruan Koldo Zuazo [1998] ez ezik, Iñaki Camino [2003] eta Irantzu Epelde [2004] ere aritu dira. Lan hauen arabera, gero eta zailtasun gehiago ikusten da Nafarroa Behereko mintzoaren eta *lapurtera* moduan ezagutu izan denaren artean dialekto mailako desberdintasunak bereiztea.

Arabako euskararen gaineko xehetasun orokorrak Koldo Zuazoren lumatik irakur daitezke *FLVen*. Hogeita hamalau ezaugarri arakaturik [2000], ondorio hauetara iristen da ikerlari eibartarra: Araba aldeko euskara gehien bat mendebaldeko euskalkiaren eremuko da edo zen, lehen *bizkaiera* izendapenez eza gutzen zenaren kidekoa, alegia. Dena den, Zuazoren ustez, lurralde horretako ekialdeko euskararen aztarnak desberdin samarrak dira eta inguru hori mendebaldeko euskaratik nafarrerara ezarian aldatuz doan tarteko eremua da.

Eskualdeei dagozkien azterketetan kontuan hartzekoak dugu Edu Zelaie-tak Nafarroako Bortzerrietako euskara-motaren gainean argitaratutakoa [2004 I eta II]: lan horren arabera, paraje horretako euskarak, funtsezko batasuna izan arren, ez dauka bere-berezko tasunik, ondoko hizkerekin lotura estua duelarik. Edonola ere, Bidasoa ibaia lerro bereizgarri moduko bat gertatzen da: Lesaka, Igantzi eta Arantza alde batetik eta Bera eta Etxalar bestetik; bistakoa denez, azken bi herri hauek Iparraldeko euskararen eragin gehiago dute, Etxalarrek batik bat.

Jose Luis Erdozia [2005] eta Iñaki Camino [2005] Sakana aldeko mintzoaz aritu dira, zenbait puntutan iritzi kontrajarriak azaltzen badituzte ere. Lehenarentzat Etxarri-Aranaztik Uharteko Arakilerainoko eremuan funtsean hizkera bat dagoen bitartean, bigarrenarentzat Arakil eta Irañetan Sakana erdialdekoan agertzen ez diren ezaugarri ugari dira. Estibalitz Montoyak, aldiz, Zugarramurdi eta Urdazubiko mintzamoldea Baztangoa barik nafar-lapurteratzat jotzen du [2004], nahiz eta azkenaldian, hiztun gazteen artean nagusitzen ari diren erabilerak kontuan izanda, Hegoaldeko formetarako joera garbi samarra nabari den. Atal honetan sartu beharko genuke, halaber, gorago aipatu den Irantzu Epeldek Lapurdiko hego-ekialdeko mintzaira kokatu nahian ondutako lana ere [2004]: Epeldek dienez, Uztaritzeko eskualdetik Hazparne ingurura ez dago euskalki aldetiko bat-bateko etenik, jauzi-era mailakatua baizik.

### **3.3. Herri bateko edota mintzo baten zenbait atalen azterketak**

Hainbeste lan kaleratu du *Fontes*-ek sail honetan, non ezinezkoa baita honelako laburpen batean denak (ezta gehienak ere) egoki samar biltzea. Egia esan, herri bateko aldaera bere osotasunean deskribatzeak eskuarki orrialde askotxo eskatzen duenez, ez dira aldizkari honetan era horretako monografia larregi aurkitzen; bai, ordea, Euskal Herri osoko mintzamolde jakin askoren zenbait atali buruzko xehetasun eta argibide ugari.



Hala ere, badira herri edo auzo bateko deskribapen orokorren artean aipa ditzakegun banaka batzuk, hala nola, Iñaki Gaminde bilbotar saiatauk Bizkaian Butroe, Elantxobe edota Bilboko Arbolantxa eta Buxa auzoetako berbetak [1982, 1985 eta 1987] aurkeztuz moldatuak, eta Araban galzorian dagoen Urrunaga, Nafarrate eta Elosuko euskara-apurrak jasotzen dituenak [1999]. Arabarekin jarraituz, Henrike Knörrek Lagraneko zenbait euskal berba helarazi zigun [1978 (2)], eta atera berri da Jose Luis Ormaetxeak Aramaioko hizkeraz defendatu zuen tesiaren laburpen zehatza eta osatua [2006].

Sakanan Gregoria Solís-ek Lizarragako euskararen berezitasuna [1993] azpimarratuz egindakoaz gain, Jose Luis Erdoziak Bakaiku [2002] nahiz Irañeta [2004] hizkerak eta Etxarri eta Arbizu artean kokatzen den Lizarraga-bengoa auzokoa [2004] aurkeztu ditu, azkenekoa Patxi Floresekin batera. Bitxiak dira, bestalde, Zuberoako mugan baina administrazioz Biarnoko herri-txoa den Jeruntze herritxoan egiten den euskarari buruz Philippe Etxegorrik erakusten dituen argibideak. Eta argigarriak, era berean, Koldo Zuazok Oiarzungo hizkeraren kokagunea berrikusteko ematen dituen arrazoiak [1997].

Mintzo konkretu baten atalei dagozkien artikuluak dira, jakina, gehien argitaratu direnak FLVen. Hemen ere Iñaki Gaminde agertzen zaigu lankiderik emankorrenetakoa, besteren artean, Zeanuri, Orozko, Munitibar, Meñaka, Gatika, Jatabe, Bakio, Leioa, Eibar, Alli edo Lesakako aditzak, azentuak, tonuak, intonazioak eta beste hainbat xehetasunen berezitasunak eskainiz [1982 eta 2004 bitartean]. Txomin Peilleneri esker Zuberoako euskararen zokondoak hobeto ezagutzeko aukera izan dugu [1979, 1980, 1983 eta 1992]. Alokutiboaren inguruko lanak era sarri taxutu izan dira: Kontxi Arregi eta Rodrigo Garciak Markina aldeko hizkerari begiratuz [1981]; Xabier Burgetek Otxandio, Ubidea eta Aramaioko Oletakoari [1994]; Iñaxio López de Aranak Oleta eta Eibarko hiketa-erabilerak erkatuz [2002]; eta Eneko Barrutiak Bizkaia guztirako hiketa-paradigmak proposatuz [1987].

Jose Basterretxea *Oskillaso* Gernika aldeko intonazioaz aritu zen [1975] eta Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegí* zubereraren mugagabeaz [1977]. Alfonso Irigoienek “ahal izatea” eta “ezin izatea” Euskal Herriko mendebaldean nola adierazi izan diren azaldu zuen [1996]. Koldo Artolak zaraitzueraz aztertzeke zortzi ekarpen [2002 eta 2005 bitartean] eta erronkarian inguruko lau lan [1977tik 1992ra] moldatzeaz gainera, hegoaldeko goi-nafarreraren azentuari buruzko argibide ugari eman zituen [1992]. Eta Patxi Salaberrri Zaratiegik toponimia eta dialektologiaren arteko harremanak [1996], eta Luzaideko [2004] nahiz Goizuetako [2005] hizkera adierazkorra arakatu zituen (lehen herrian Peio Kaminorekin batera eta bigarrenean Kamino eta Juan Jose Zubirirekin).

#### 4. EUSKARAREN HISTORIAZ ETA LITERATURAZ

Historia eta literaturaz diharduten *Fontes*-eko lanetan altxor preziatua gordetzen zaigu gure hizkuntzaren ikerketarako. Batzuetan alderdi linguistikoa eta literarioa batera eta nahasian joaten badira ere, esparru bakoitzari dagozkion ekarpen batzuk behintzat nabarmentzen saiatuko gara.

#### 4.1. Hizkuntzaren historia

Gorago aipatu denez, aldizkari honen orrialdeetan behin eta berriro aritu dira filologo eta hizkuntzalariak euskarak beste hizkuntza batzuekin izan ditzakeen harremani buruz. Adibidez, ez dira falta izan euskal-iberismoari aldez edo moldez heldu dioten egileak, nahiz eta XX. mendearen azken hamarkadetan teoria hau baztertuxea dagoen. Hor ditugu, besteak beste, Lennart Anderson [1971], Juan Antonio Frago Gracia [1976], Francisco Javier Oroz Arizcuren [lau bider 1975etik 1979ra], Juan Faus Cardona [1975] eta, zenbait urteren hutsunearen ondoren, Santiago Pérez Orozco, [1993 (2) eta 2004], Eduard Selleslagh [1996], Héctor Iglesias [2000 eta 2001] eta Jesús Rodríguez Ramos-en [2002] lanak.

Ez dira gutxiago izan, Uhlenbeck, Lafon eta Bouda-ren ildoari jarraituz, euskara eta hizkuntza kaukasiarraren antzekin arduratutakoak. Kaukaso aldeko hizkuntzak ere askotarikoak direla kontuan izanik, era eta ikuspegi desberdinetako lanak ekoiztu izan dira: Nils Holmer [1970], G. Silnitski [1970] eta Karl Bouda berak [1971] ekin zioten gerora beste askok luzatuko zuten zerrindari, hala nola, Wilfried Schuhmacher eta F. Seto [1993 eta 1994], Alexey Zytsar [1997 (2) eta 1999], M. V. Zelikov [2000], Jan Braun [2001] eta Roberto Serranok [2004]. Alabaina, Yuri Vladimir Zytsar errusiarra eta Vahan Sarkisian armeniarra ditugu, agian, arlo honetan interesgarrienak: beste zenbait lanekin batera, azpimarratzekoak dira lehenengoaren “Reflexión sobre la teoría vasco-caucásica” [1994] eta bigarrenaren “Noticias vascológicas de Armenia” [1998]. Baita Koldo Mitxelenak 1966an gauzatu eta bera hil eta gero *FLV*en ezagutarazi zen “Problemas generales de la reconstrucción y la posición del grupo de lenguas indoeuropeas del Asia Menor” izeneko ere [1995].

Euskararen jatorria hizkuntza kamitikoetan sumatzen duen teoriak, ostera, ez du oihartzun gehiegi izan *Fontes*-en. Aurreko atal batean gogoratu dugun Hans Mukarovsky-ren lana da jakingai honetaz sakondu duen bakarra: “Algunas consideraciones sobre las lenguas de África occidental” [1997]. Baina Vienako irakaslearentzat Afrikako Ipar-mendebaldeko hizkuntzekin (bereberra, etab) baino areago Sudan, Etiopia eta Somaliakoekin bilatu behar da senidetasuna.

Erromatarren garaiko hizkuntza-egoeraz Koldo Mitxelenaren “Romanización y lengua vasca” [1984] da, beharbada, aldizkariko lanik garrantzitsuenak. Osterantzean, epigrafien inguruko idazlan banaka batzuk dauzkagu: Joan Coromines [1973], Javier Velaza [1991] eta José Vicente Huarte Lergak [1997 (2)] aztertu dituzte Nafarroan eta lurralde mugakideetan ediren diren tankera horretako izkribuak. Erromatarkuntzaren testuinguruan Ricardo Cierbide [1980], Jose Maria Jimeno Jurío [1986] Txomin Peillen [1992] eta Patxi Salaberri Zaratiegik [2000] *-ain* atzizkiaz jardun dute; *Iruñea/Pompaelo/Olcárum* lekuizenak, aldiz, Antonio Tovar [1977], Polikarpo Iraizoz [1980], Jesús María Zubillaga [1982], Jose Maria Jimeno Jurío [1991] eta Carlos Jordán-en [2001] aztergai izan dira.

Erdi Aroko lekukotasunek, oso handia ez bada ere, utzi dute euren arrastoa: *euskara* hitza dela-eta, hainbat artikulu idatzi dute Xabier Kintana [1975], Alfonso Irigoien [1990], Txomin Peillen [1995] eta J. M. Jimeno Jurío [1996]. Donemiliaga Kukulako euskarazko glosen interpretazio berria egin zuen Hortensia Viñes-ek [1987] eta laster erantzun zion Alfonso Irigoienek [1988]. XIII. mendeko dokumentuetan ageri diren hitzak komentatu zituzten Julio Caro Barojak [1969] eta David Alegria-k [2002]. XV. mendekoak bi testu luzeago eta garrantzitsuagoak ditugu: 1415eko gutun bat [Florencio Idoate, 1969 eta Aingeru Irigarai, 1970] eta Alfonso Otazuk ezagutarazi zuen Bretainiako Kanta [1975]. Nafarroako erreinuan hitz egiten ziren erromantzeek ere izan dute euren txokoa *FLVen*: Ricardo Cierbide nabarmendu da zeregin horretan nafar erromantzeari buruzko lanekin [1970 eta 1980] nahiz okzitaniarazkoarekin [1993].

## 4.2. Literaturaren historia

Ez dio horrelako errebista batek, oro har, aparteko arretarik ematen literaturari, baina gurean oraintsura arte hizkuntza eta literatura elkarrengandik oso hurbil ibili izan direlako-edo, albiste ugari dakar *Fontes*-ek hainbat euskal idazleri buruz. Autorerik kutunenak nafarrak diren arren (Axular eta Lizarraga batez ere), Ipar eta Hego Euskal Herriko beste probintzia batzuetako idazleen berri topatuko du irakurleak aldizkari honetako ehun aleetan.

Urdazubin jaio eta Sarako erretore izandako Pedro Axular (1566-1644) da, zalantzarik gabe, artikulu gehien idatzarazi duen autorea: hogeita lau, horietatik erdiak 1974an eskaini zitzaion ale berezian. Luis Villasante sei artikulurekin [1974-1982] eta Patxi Salaberri Muñoz hirurekin [1999-2001] dira oparoenak, nahiz eta euren lanetan Gero liburuaren alderdi linguistikoari heltzen dioten bereziki. Historiografiari dagokionean, interesgarriagoak dira beste hauen ekarpenak: Aingeru Irigarai [1974 eta 1978], Vicente Galbete [1974], Itziar Mitxelena [1974], Jorge Errezuko [1974], Jose Maria Satrustegi [1974] eta Juan Agirre [1980]. Axularren atzetik Joakin Lizarraga (1748-1835) dator *Fontes*-eko euskal idazle aztertuenen artean. Hemeretzi emanalditan kaleratutako hamar artikulutan, Elkanoko erretorearen argitaragabeko obra askozaz gain, egilearen inguruko albisteak ere agertu izan dira: batez ere, Frantzisko Ondarra [1972 eta 1978] eta Juan Apezetxearen [1976 (2)] lanei esker.

Aipatu berri ditugun biak adina ez izan arren, beste zenbait euskal autore eta testu ere agertu zaigu aldizkarian, sarritan beraien obra nahiz bizitzaren xehetasun agitz jakingarriak eta ezezagunak eskuratzen zaizkigula. Antzinakoenetatik hasita, Juanes Amendux (c. 1540-1580) poeta iruindarraz aritu dira Jose Maria Satrustegi [1975], Patxi Salaberri Zaratiegi [1996] eta Jose Maria Jimeno Jurío [1996]; Joan Perez Lazarragako [c. 1548-1605] arabar idazle aurkitu berriaz Xabier Kintana [2004]; Antso Elsokoren 1561ko katixima galduaz Jose Goñi Gaztanbide [1995]; Joanes Leizarragaren lexikoaz [1973] eta honek nahiz Axularrek erabilitako adizkiez Gabriel Aresti [1972 eta 1971]; Juan Beriaingo [c. 1566-1633] Utergako apezaz Jose Maria Jimeno Jurío

[1988]; Juan Undianoko, 1586tik aurrera Arnotegiko ermitan bizi izan zenaz Bernardo eta Mariano Estornés Lasa [1970] eta Antonio Unzueta Etxebarria [1982]; Bernard Gazteluzar (1614-1701) lapurtarraren poesiaz Pierre Lafitte [1974]; Felipe Próspero printzea, Felipe IV.aren semearen jaiotza ospatzeko Martin Iturbekok 1658an Salamancan ondutako bertsoez Lucien Clare [1974]; eta sasoi bereko maite-bertso bizkaitar batzuen gainean Jose Maria Satrustegi [1978 (2)] eta Alfonso Irigoien [1978].

XVIII. mendeko makina bat sermoi eta dotrina, orain arte argia ikusi gabekoak anitz, ezagutarazi dizkigu FLVek. Frantzisko Ondarrak aurkitu ditu horietako asko, Goñerri eskualdean batik bat. Nabarmentzekoak dira sermoigile eta idazle ezezagun horietako bati buruz Ondarrak eskuratzen izkigun albiste aberatsak, hau da, Munarritzeko seme eta Izuko parroko izan zen Juan Martin Iberokoren (1729-1783) gainean [1996]. Beste horrenbeste esan daiteke Juan Vicente Díaz Sáez de Jauregi (1753-1823) Artatzako bikarioaz: Balbino García de Albizuk eta Patxi Salaberri Zaratiegik argibide garrantzitsuak jakinarazi zizkiguten [2004ko artikulu banatan], egilea zein Ameskoako euskararen bereizgarriak eta bilakaera hobeto ezagutu ahal izateko. Lehendik argitaratutako dotrinagile klasikoen testuak ere aztertu izan dira: Otxoa-Arin [1972], Olaetxea [1996] eta Ubillosenak [1982 eta 1989], adibidez.

Garai horretako gai ez hain erlijiosoak ere publikatu ditu Iruñeko argitalpenak: esaterako, Argien Gizaldiaren hasieran Joanes Etxeberri Sarakoak (1668-1749) idatzitako *Escual-herrico gazteriar* izeneko liburu-atalak kultura klasikoaren transmisioaz hitz egiteko aitzakia eman zion Patxi Salaberri Muñozari [2002]; Jose Maria Satrustegik azeriak harrapatzeko errezeta bitxi baten euskarazko itzulpena, 1763koa eta Berastegin topatua [1975], eta XVIII.eneko maite-kanta gipuzkoar eta elebiduna [1995] helarazi zizkigun; Txomin Peillenek Jusef Egiategi [1980] eta Joan Felipe Belako [1983] mende bereko idazle zuberotarren testuak komentatu zituen; eta mendebaldeko euskalkian modututako bi lan (Juan Antonio Mogelenak izan daitezkeen alegia batzuk eta Pedro Ignazio Barrutiaren *Gabonetako ikuskizuna*) jorratu zituen Jon Kortazarrek 1980 eta 1981ean.

Urritxoago izan arren, azken mendeetako euskal idazleei buruzko xehetasunak ere eskaintzen dizkigu FLVek. Hona hemen, lagin moduan, horietako batzuk: Pello Jose Aranburuk Juan Bautista Agirrerren bibliotekaren deskribapena egin zuen [1996]; Esteban Adoingo (1808-1880) aita kaputxino nafarraren izkribuak Pedro Maria Zabalza/Vicente Galbete [1975], Juan San Martin [1977], Jose Maria Satrustegi [1978] eta Frantzisko Ondarrak [1985] arakatu zituzten; eta Pierre Lafitte kalonjeak Pierre Topet *Etxahun* [1970] eta B. Borda [1978] Iparraldeko bertsoegileez idatzi zuen.

XX. mendeko autoreei dagokienean, Jose Manuel Etxeitaren nobelagintzaz jardun zuen Jon Kortazarrek [1979]; Fermin Irigarai *Larre*koren itzulpen literario bat argitaratu zuen bere seme Aingeruk [1980] eta haren euskaltzaletasuna aztertu Marian Antoñanak [1994]; Enrike Zubiri *Manezaundiren* lanaz arduratu ziren Antoñana bera [1995] eta Jorge Errezuko [1975]; Niko-

las Ormaetxea *Orixeren* bestelako ikuspegia eman zigun Patziku Perurenak [1992 (2)]; eta Jose Maria Agirre *Lizardiren* bizitza eta idazkeraren hainbat zertzelada utzi zigun Luis Villasantek [1975].

### 4.3. Euskarazko dokumentuak

Hasieratik aurreratu dugu, *Fontes-en* xederik nagusienetakoa, bere izenburuak garbi adierazten duen legez, euskarazko dokumentuak ikertzea ez ezik, ezagutaraztea ere badela. Zeharka bada ere, horietako batzuk (sermoiak eta katiximak bereziki) dagoeneko aipatuak izan direnez, gehiegi ez luzatzearren, ez diogu orain arte esandakoari gauza asko erantsiko. Honi buruzko berri zehatz eta joriagoak nahi dituenak ez dauka *FLVren* 100. zenbakian [2005] azaldu ziren Iñaki Camino eta Roldan Jimenoren artikuluko trinkoetara jo besterik. Beste horrenbeste esan daiteke numero horretantxe Patxi Salaberri Zaratiegik agertu zuen onomastika-lanen gainean errebista honetan argitaratutako artikuluz bezainbatean. Izan ere, euskal jatorriko leku-, etxe- eta pertsona-izenei buruzko ikerketek *FLVen* orrialde ugari bete baitute.

Hala eta guztiz ere, arrazoi desberdinengatik zenbait testuk daukaten inportantzia dela bide, egoki deritzogu salbuespen banaka batzuk egiteari. Esate baterako, aipamen berezia merezi duela uste dugu Erdi Aroko poema zaharren corpusa ederki osatu zuen Britainiako kantak [Alfonso Otazu, 1975]. Aurretik ezagutzen genituen euskarazko ezkontza-promesei buruzko euskal testuak ugaldtu ez ezik, aberastu ere egin ziren Jose Maria Satrustegiren ekarpenen bitartez [1977 (2), 1979 eta 1992]. Halaber, garrantzia handia izan zutela iruditzen zaigu XVI. mendearen hondarrean, Frantzia eta Espainiaren arteko espioitza militarra zela-eta, Lapurdiko mugan idatzi ziren euskarazko gutunak: Jose Maria Satrustegi [1991 eta 1993], Josu Oregi [1992] eta Jose Manuel Floristán Imízcozek [1993] transkribatu eta aztertzeaz gainera, berauen testuinguru historikoa ere azaldu zuten.

Argitara gabeko euskarazko beste zenbait gutun ere ekarri ziren aldizkariara: esate baterako, Donibane Lohizuneko herriko etxetik Berakora bidalitako bostak [Aingeru Irigarai, 1972]; edota Lapurdi eta Nafarroa Behereko hainbat herritatik Baztanera eta Berara igorritakoak [J. M. Satrustegi, 1986]. Azpimarratzekoa dira, halaber, Ultzamako hargin eta zurgin bati Eltzaburuko eskola jasotzeko 1796an jarri zitzaizkien baldintzak [Joxemiel Bidador, 2001]; eta hurrengo mendean Iruñea ondoko Olaitzen sortutako bertso erlijioso nahiz profanoak osatutako sortatxoa. Azkenik, balio berezia du guretzat Perpetua Saragueta mezkiriztarrak 1979an publikatu zituen autobiografia moduko lan-txo biak: “Nere oroimenak” eta “Trini Urtasun, Bertsolaria (1894-1978)”.

Amaitzeko, eta atal honetan zein bestetan hutsune asko eta larri samarrak egongo direla konturaturik ere, ez genuke aipatzeke utzi nahi, euskal linguistika nahiz literaturarako duen interesarengatik, zenbait idazle eta hizkuntzalarik elkarren artean izandako postaturke oparoa. Jose Maria Satrustegiri zor diogu gehien bat gutun hauek bildu, sailkatu eta *FLVen* argitaratu izana. Arruazuko ikerlariak “Materiales para la colección epistolar de

Luis Mitxelena” kaleratu zuen lehendabizi [1989]; gero “Aresti eta Mitxelenaren arteko posta harremanak” [1994]; ondoren “Mirande eta Mitxelenaren arteko posta harremanak” [1996]; eta azkenik, 1997 eta 2002 arteko bederatzia emanalditan, “Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena”. Horietatik at, Yuri Vladimir Zytsar-ek eta Errenteriako maisuak elkarri idatzikoak ere hiru emanalditan [2001, 2004 eta 2005] eskuratu dizkigu *Fontes*-ek.

## BIBLIOGRAFIA

CAMINO, Iñaki. “Euskal Dialektologia *FLV* aldizkarian”. In: *FLV XXXVII*, 100. zenbakia (2005), 525-557 or.

JIMENO ARANGUREN, Roldán. “Historia social e institucional de las lenguas (especialmente del euskera) en *Fontes Linguae Vasconum* (1969-2005)”. In: *FLV XXXVII*, 100. zenbakia (2005), 567-606 or.

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi. “Los trabajos de onomástica en *Fontes Linguae Vasconum*”. In: *FLV XXXVII*, 100. zenbakia (2005), 607-632 or.

ZUBIRI LUJANBIO, Juan Jose. “Hizkuntzaren jabeakuntzaz *Fontes*-en”. In: *FLV XXXVII*, 100. zenbakia (2005), 559-565 or.

*Fontes Linguae Vasconum* – Índice de autores: <http://dialnet.unirioja.es>

*Jerardo Elortza Egaña*